

## EGUNEKO AHOLKUA

### 15. AHOLKUA: ONTZIAK – EDUKIONTZI BERDEA



Botilak eta beirazko potoak botatzen dira edukiontzi honetara. Ez ditu kristalezko materialak hartzen, hala nola edalontziak, kopak, bonbillak...

Edukiontzi honetara botatako beiraren % 98 birziklatzen da; edukiontzi honetara botatzen denaren % 2 soilik da baztertzekoa.

#### Prozesua:

- Bildutako beira sailkapen-plantara eramaten da (Arabian kokatuta dago), eta materialak bereizten dira han, dentsitatearen, kolorearen eta abarren arabera.
- Sailkatu ondoren, garbitu egiten da, eta beira ez den guztia kentzen da (etiketak, kola, etab.).
- Prozesu horren ondoren, xehatu egiten da, hauts bihurtu arte.
- Produktu hori jatorrizkoak bezalako beirazko ontziak ekoizteko lehengai gisa erabiltzen da.

#### Zer utzi

- Beirazko botilak: zukuak, freskagarriak, muztioak, sagardoa, ardoa, likoreak, etab.
- Beirazko pote eta flaskoak: elikagaienak, marmeladak, parfumeenak eta kosmetikoenak.

#### Nola utzi

- Botila edo ontziak hustu eta uretan pasatu utzi aurretik.
- Ez sartu ontzi bat bestearen barruan. Kendu tapa, kortxo eta tapoiak eta utz itzazu dagokion edukiontzian.
- Utzi beira plastikozko poltsarik gabe.

#### Ez!

- Ispiluak
- Ate, leiho eta kotxeetako kristalak
- Bonbillak eta hodi fluoreszenteak
- Kristalezko tresnak: edalontziak, kopak, txarroak, irudiak...
- Sendagaien ontziak
- Portzelanazko ontziteria eta irudiak...
- Ontzien tapak